

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

2021eko ekitaldirako aurrekontu orokorraren hasierako onespena

Udalbatzak, 2021eko urtarrilaren 27an balio osoz egindako osoko bilkuran, erabaki du hasierako onespena ematea erakunde honen 2021eko ekonomia ekitaldirako aurrekontu orokorrari.

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakunde Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, espediente hori jendaurrean jarriko da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko udalbatzari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Maeztu, 2021eko otsailaren 4a

Alkatea

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA